

Tolosa 2020-12-02

Kaixo,

Oargi Mendi Elkarteak, abenduaren hasieratik aurrera 2021eko federatu txartelen tramitazioak egiten hasiko da.

Txartelaren eskaera egiteko, ondoko orrian zure datuak idatzi eta Laboral Kutxaren kontuan dirua sartu. Ondoren, elkartean aurkeztu betetako orria eta diru sarreraren ordainagiria.

Internet bidez federatzeko aukera ere dago. [oargimendi@gmail.com](mailto:oargimendi@gmail.com) helbidera bialduta.

Luzapena bakarrik ordaindu behar da federatu txartela egin ondoren luzapen bat egiten baduzu.

Txartela etxea bialtzea nahibazu 1€ gehio geitu beharko duzu eta esan etxea bialtzeko.

Aurten koronavirusaren arazoagatik gomendagarria da behintzat txartela egiteko paperak email bidez bidaltzea, Kontutan eduki ordainagirian federatu behar den pertsonaren izen abizena jarri behar dela.

Jakinazten dizuegu, federatuen prezioen barne dagoela 20€ euroko bazkide kuota. Beraz, Oargiko federatu oro Oargi Mendi Elkarteko bazkide da.

Bulegoko ordutegia: astelehena eta osteguna 19:00etatik 20:30etara.

Bazkide gazte batzuen eskaria jaso eta gero, konturatu gara gure liburutegian ez dagoela ia mendiko literaturari buruzko libururik.

Horregatik, Klubaren egoitzara 2021ko federazio-fitxa osatzera hurbilduko zaratela aprobetxatuz, eskatzen dizuegu antzeko liburu irakurriak badituzue, etxeko apalategiren batean hautsa hartuz

edota ez badakizue beraiekin zer egin, klubean jasotzeaz poztuko ginatekela.

Diru gasturik egin aurretik, iristen zaizkigun liburuen sailkapen bat egingo dugu eta, agian, lortzen zaila den aleren bat irakurtzeko aukera izango dugu.

Azkenik, liburu bakoitza nork ematen duen jakitea polita izango litzateke, Oargi zigiluarekin batera liburuan idatzita jartzeko.

Bestalde, gogoratu nahi dizuegu liburutegi zabal bat daukagula, bertan mapak, liburuak, gidak (eskalada, arroilen jaitsiera...) etb. daudela bazkideen eskuragarri.

Ekintza desberdinak egiteko materiala alokatzeko aukera ere badago (kranpoiak, pioletak, erraketak, neoprenoak, arnesak, kaskoak, etb.).

Urtean zehar mendi elkarteak antolatzen dituen ekintzetan parte hartzera animatzen zaituztegu.

Agur bero bat.

OARGI MENDI ELKARTEA

**[www.oargi.org](http://www.oargi.org)**    688698642 mugikorra    [info@oargi.org](mailto:info@oargi.org)